Laguntza hartu duten pertsona guztien kopurua, osotara, ez da bien batura, badirelako pertsona batzuk urtero agintzen duen zentro batetik ematen duen zetro batera pasatu direnak. Agintzen duten zentroen kopurua jaitsi eta ematen dutenena igo egin dela ikusten da.

Informazio sistemak ez du aukerarik ematen jakiteko zein dauden egoera egonkorrean, bakoitzaren kasuan helburuak desberdinak direlako. Kontuan hartzen badugu opiazeoen mendekotasuna gaixotasun kronikoa dela eta tarteka agerpenak izaten dituela, tratamendu bateko egonkortasuna sintomak moteltzea dela esan daiteke, programa terapeutikotik kanpoko opiazeoen kontsumoak dirauen arren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

# Hazkuntza estentsiboaren bidez haragitarako behi-azienda sustatzen duten lehentasunezko abeltzaintza ustiategientzat onetsitako laguntza berezi eta bakarrari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak hazkuntza estentsiboaren bidez haragitarako behi-azienda sustatzen duten lehentasunezko abeltzaintza ustiategientzat onetsitako laguntza berezi eta bakarrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

“Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du hazkuntza estentsiboaren bidez haragitarako behi-azienda sustatzen duten lehentasunezko abeltzaintza ustiategientzat onetsitako laguntza berezi eta bakarrari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legeak ezartzen duenez, lehentasunezko nekazaritza ustiategi gisa katalogatzeko beharrezkoak dira, beste baldintza batzuen artean, nekazaritzako dirusarreren portzentaje zehatz bat eta lan errenta bat. Hori dela eta, Nekazaritzako Ustiategien Erregistroa bizia da, ustiategien katalogazioa aldatzen baitu Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren urteko aitorpenaren arabera. Agerraldiaren egunean abeltzaintzako 1.749 ustiategi zeuden erregistraturik, eta kalkuluen arabera, horietatik 1.268k besterik ez zituzten baldintzak beteko; prima jaso zezaketen abelburuak 22.762 ziren.

Aurreikuspen horiekin ere, inskribaturiko abeltzaintzako ustiategi guztietara (1.749) igorri ziren eskabide-orriak. Horietatik 1.008k baizik ez zuten aurkeztu eskabidea, eta horietatik soilik 592 dira lehentasunezkoak.

Lehentasunezko ustiategia ez izateagatik laguntzak ukatu zaizkien ustiategietako abelburuen batez besteko kopurua 11 2koa da, hau da, ustiategi txikiak dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko irailaren 27an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# Altsasuko Galdan enpresak botatzen dituen ke toxikoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko Galdan enpresak botatzen dituen ke toxikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Altsasuko Galdan enpresari eginiko ikuskapenei eta horren inguruan hartutako neurriei buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Iazko udazkenean isurketen jarraipena ezarri zen, barneratze neurria kontrolatuz airean den ClH kontzentrazioa mailak zehaztu ahal izateko kaptadore baten bidez. Kontrol aldian, mailak antzemateko adinakoaren azpikoak izan ziren. 2001eko martxoan kontrolerako organismo baimendu batek egin zuen jarduera lizentzian aurreikusiriko isurketaren urteko neurketa, eta hauexek izan ziren emaitzak:

| | Neurturiko kontzentrazioa (mg/Nm$^3$) | Baimendutako gehineko kontzentrazioa (mg/Nm$^3$) |
|---|---|---|
| PARTIKULAK | 4,4 | 150 |
| ClH | 17,6 | 460 |

Aurtengo abuztuan departamentuak beste neurketa bat egin du, eta emaitzak antzekoak izan dira:

| | Neurturiko kontzentrazioa (mg/Nm$^3$) | Baimendutako gehineko kontzentrazioa (mg/Nm$^3$) |
|---|---|---|
| PARTIKULAK | 5,7 | 150 |
| ClH | 3,2 | 460 |

Aldi berean gasen lagina hartu da tximinian bertan, laborategian analizatu eta egun aurreikusirik ez dauden balizko beste kutsatzaile batzuk zehazteko. Analisi horien emaitzak emateko dauzka laborategi espezializatu batek. Emaitzak ikusirik kontrol berriak programatuko dira.

2. Departamentuak jarduketa programa bat taxutu du, fusio labeko keetan izan daitezkeen kutsatzaileak eta horien barreiadura ebaluatzeari buruzko azterlanak barne. Aurreikusiriko jarduketak hauexek dira, zehazki:

Barreiadura azterlana, alde horretako aldagai meteorologiko eta orografikoekin, barreiadura ahal den onena izan dadin tximiniak izan beharreko altuera zehazteko, eta horrela isurketa gogaikarririk berriz ez gertatzeko.

Errotazio-labean oxigenoa injektatzen duen erregailu bat jartzeko azterlana, errekuntza hobetu, gasen oxidazioa handitu eta keetan diren kutsatzaileen kopurua murrizteko.

Labeko keen laginak hartzea analisi kromatografikoa egiteko, horren bidez giza osasunerako kaltea eragin dezaketen balizko gaiak identifikatzeko. Hasieran aurreikusirik ez zegoen gairen bat antzemanez gero, ebaluatu eginen da eta neurri zuzentzaile osagarri egokiak ezarriko dira.

Enpresari eskatu zaio lehendabiziko bi azterlan egin ditzan. Departamentua ari da egiten isurketen ebaluazioa.

3. Gaurdaino ez da atzeman gai toxikorik Galdan enpresako ke-isurketetan, salbu eta ClHrena, baina hori kontrolpean dago eta neurketek erakusten duten isurketa mailak legez baimendutakoak baino nabarmen txikiagoak dira, beraz ez da orain arte inolako zehapen espedienterik ireki.

4. Aurrerago aipaturiko neurriak hartu bitartean, eta biztanleentzako kaltegarriak diren isurketak berriz gerta daitezkeela-eta, Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak, Foruzaingoak eta Altsasuko udaltzaingoak jarduketa protokolo bat egin dute, aurrerantzean gerta daitezkeen isurketen jarraipen eta kontrolerako. Ildo berean, enpresak ekintza protokolo bat egin du, isurketa horiek inguruko biztanleengan eragin ditzaketen kalteak ahalik eta gehien murrizteko.

5. Oraindik ez ditugu lortu Galdan, S.A.ren keen laginaren analisi kromatografikoaren emaitzak, horrexegatik ez dakigu gai kutsatzailerik dagoen ala ez eta horien kontzentrazioa.

Hemendik gutxira emaitzak esku artean izatea espero dugu, egin beharrekoa zehaztu ahal izateko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

# 1999, 2000 eta 2001ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemako ospitaleetan, gaixoen ospital barreneko infekzioen ondoko heriotza tasa zenbatekoa izan den jakiteko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak 1999, 2000 eta 2001ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemako ospitaleetan, gaixoen ospital barreneko infekzioen ondoko heriotza tasa zenbatekoa izan den jakiteko galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan Jose Lizarbe foru parlamentariak, 2001eko abuztuaren 23an, galdera egin zuen 1999, 2000 eta 2001ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemako ospitaleetan, gaixoen ospitale barreneko infekzioen ondoko heriotza tasa zenbatekoa izan den jakiteko. Hona Osasun kontseilariak igorri duen dokumentazioa:

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 1999ko 1. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 1999ko 2. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 1999ko 3. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 1999ko 4. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 2000ko 1. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 2000ko 2. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 2000ko 3. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 2000ko 4. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 2001eko 1. hiruhilekoa.

Ospitaleetako infekzioari buruzko txosten epidemiologikoa. 2001eko 2. hiruhilekoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 28an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

---

# Adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari eta osasun gaietako eledun Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontua betetzeari buruz egindako zazpi galderetatik bakar bati, laugarrenari –"1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak bete duen aurrekontua adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako Nafarroan kokaturiko egoitzetan, berekietan nahiz hitzartuetan, eta ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa"– erantzun ahal diogu, gainerakoak ez baitira Osasun Departamentuan dauden programei buruzkoak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentukoei buruzkoak baizik.

Nafarroako Gobernuak 2000ko ekainaren 12an hartutako Erabakiaren bidez gizarte eta osasun arloko koordinazio programa bat onartu zuten Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak, adimeneko gaixo kronikoentzako, eta bateko zein besteko zuzendari kudeatzaileari baimena eman zitzaien programa horretarako itunak izenpetzeko.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak itun bat izenpetu du Jesusen Bihotz guztiz santuaren Senide Ospitalekoekin adimen gaixo kronikoak zaintzeko, egoitzetan. Nafarroako Osasun Zerbitzuak horren osagarri den beste itun bat izenpetu du osasun laguntzarako.

Egoitza laguntzadunetan (eta pisu babestuetan) dauden adimen gaixoentzako osasun laguntzarako itun horri buruzko datuak hauexek dira:

• Egoitzetako tokiak: 42 egoitza laguntzadunetan
16 pisu babestuetan

• 1999. urtea: ez zen itunik izan.

• 2000. urtea: irailean osasun laguntza emateko ituna gauzatu zen.

– 3.116 egonaldi

– 7.273.976 pezetako aurrekontua bete zen

• 2001. urtea: maiatzaren 31ra arte 6.551 egonaldi gertatu dira eta betetako aurrekontua 14.772.698 pezetakoa da.

– Aurreikuspena da abenduaren 31rako egonaldiak 15.702 izanen direla eta gastua 35.454.448 pezetakoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko irailaren 27an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

**I saila:**
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

# 2001eko abenduan egindako bilerak

### MAHAIA

27an.

### MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

4, 10 eta 17an.

### OSOKO BILKURA

12an:

– Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari Batasuna, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Askotarikoa eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeek aurkezturiko osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

27an:

– Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari buruz Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onartutako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

13, 14, 17, 18 eta 19an:

### EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

– Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

# 2001eko abenduan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

**4an:**

– Idazkiak, Ruth Aizpurúa Ramírez, Gregorio Silanes Susaeta, Miren Itziar García Elosegui, David Maroto Iparragirre, Jorge Iriarte Ollo, Mª Itziar Sarasua Aliende, Sara Aramendía Catalán, Patricia García González, Amalia Jiménez Atienza eta Francisco Javier Franchez Apecechea jaun-andreenak. Horien bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

– Idazkia, Iñaki Tirapu jaunarena. Horren bidez eskatu du Nafarroako Parlamentuko Artxiboko zenbait agiri aztertzea.

– Zuzenketak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztuak.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea AUDENASAko enpresa-batzordeko ordezkaritza batekin, lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruz informazioa eman dezan.

– Galdera, Audenasaren balizko pribatizazioari buruzkoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Zuzenketak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztuak.

– Zuzenketak, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak Nafarroako 2002ko Aurrekon-

tu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztuak.

**5ean:**

– Idazkiak, Elena Gómez Lozano, Mikel Zabala Montoya, Mª José Salinas Liberal, Elena Cabello Ruiz, Alberto Boada García, Lidia García Lasheras, Julio Elvira Vergara, Alberto Errea Irisarri, Ana Isabel Olaso Val, Peio Joseba Monteano Sorbet, Ana Amigot Zardoya, Mª Mendia Ruiz Arzoz, Mª Ángeles Burguete Villanueva eta Teresa Laparra Navarro jaun-andreenak. Horien bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

– Idazkia, Lehendakaritzako Ministerioarena. Horren bidez, Europar Batasunetik kanpoko nazioarteko lehia gogorra jasaten duten elikagaien (adibidez, zainzurien) etiketei dagokienez aldaketa egitea proposa dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak onartu zuen ebazpena jaso duela jakinarazi eta horrekin batera Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena igorri du.

– Osoko zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

– Zuzenketak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztuak.

– Zuzenketak, Parlamentuko Askotariko Taldeak Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztuak.

– Idazkia, Barañaingo Udalarena. Horrekin batera, Udalak hartutako erabakia, Nazioko Gobernua eta Parlamentua premiatzeko genero indarkeriari buruzko lege integral bat onar dezaten.

– Idazkia, Barañaingo Udalarena. Horrekin batera, Udalak hartutako erabakia, abenduaren 1ean barau egun bat egiteko Afganistango gobernu berrian emakumeen integrazioa lortzeko.

– Idazkia, Parlamentuaren egoitza berrirako lanen zuzendaritza fakultatiboarena, aurrekontuaren aldaketari buruzkoa.

**7an:**

– Idazkiak, Amaya Ibáñez Aguirre, Mercedes Seviné Ruiz, Ana Isabel Salvadores Santamaría, David Aznar Lafont, Mónica Baciero Soto, Estrella Lamadrid Morón eta Marta Torres González jaun-andreenak. Horien bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, krisian dauden enpresei 2000. urtean emandako laguntzei buruzko informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Batasuna Parlamentuko Taldeak espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoari buruz eginiko galderaren erantzuna.

**10ean:**

– Idazkia, Senatuarena, egutegiaren aldaketa bat onetsi dela jakinarazten duena.

– Galdera, zentsua egiteko kontrataturiko langileen lan egoerari buruzkoa. Foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Batasuna Parlamentuko Taldeak Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresari emaniko laguntzei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak irrati-difusioko emisoren adjudikazioen egungo titularrei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Batasuna Parlamentuko Taldeak Felipe Borboikoak Nafarroara eginiko bisitaren kostu ekonomikoari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkiak, Leandro Bartolomé García, Cristina Zabalza Tejada eta Mª Carmen Guerrero Aspurz jaun-andreenak. Horien bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

– Idazkia, “Asociación Pro Perú” elkartearena. Horren bidez jakinarazten du eskertzen diola Parlamentuari elkartearen ekimenei emandako sostengua.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez eskatu lan bilera egitea AUDENASAko enpresa-batzordeko ordezkaritza batekin, lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruz informazioa eman dezan.

– Idazkia, ACS-ACR enpresarena. Horren bidez Mahaiak aipatzen dituen txostenak eskatu ditu.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez eskatu du mozio bat sartzea hurrengo osoko bilkuraren gai zerrendan.

**11n:**

– Galdera, N-232 errepidearen bikoizketak foru lurraldean izanen duen trazadurari buruzkoa. Foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak aurkeztu du.

– Idazkiak, Inmaculada Vicente García, Teresa Lavado Piris eta Raquel Cano Benito andreenak. Horien bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

– Idazki, Nafarroako Arartekoarena. Horrekin batera, “Immigrazio Nafarroako Erriberan” izeneko txostena.

– Erabakia, Nafarroako Gobernuarena, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion eta gastuak gehitzea edo dirusarrerak murriztea eragiten duten zuzenketak tramitatzea onartzeari buruzkoa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Tuteran Foruzaingoak polizia-etxe bat irekitzeari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak zenbait lanposturi erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bidez Nafarroako Kontseiluari eskatu dio Nafarroako zerga esparruan gasolinaren gaineko zerga txertatzeko moduari buruzko txostena.

– Idazkia, ACS-ACR enpresarena. Horren bidez obren kudeaketarako unitate teknikoaren buruak azaroaren 7an emaniko txostena eskatu du.

– Idazkia, Castejóngo Udalarena, Parlamentuko taldeak 7/96 Foru Legea aldatzera premiatzen dituena.

**12an:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak biztanle baztertuen aldera egiten den etxebizitza politikari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkiak, María Luisa Pérez Aliende eta Mª Erica Sesma Montes andreenak. Horien bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzea eskatu dute.

**13an:**

– Adierazpen politikoa egiteko proposamena, tortura arbuiatzeko eta atxilotuen eskubideak betetzea eskatzeko. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu dute foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunaren lan egoerari buruzko txosten juridiko bat egitea.

– Adierazpen instituzionala egiteko proposamena, minbizia duten haurren egunerako manifestuari atxikitzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazki, Haitz Koldo Ingunza Zumalde jaunarena. Horren bidez minusbaliatua dela dio eta laguntza eskatu du etxebizitza bat errentan hartu ahal izateko.

– Foru Lege proiektua, Nafarroan material arriskutsutzat hartutakoen suntsiketa arautzen duena, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik egoteari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Pitillasko Udalak 1991z geroztik jaso dituen laguntzei buruz eskatutako informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Juan Martín Ciaurriz Fundazioari buruz eskatutako informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Ingurumen Departamentuak Pitillasko errauste-labeari buruzko eginiko txostenari buruz eskatutako informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Iruña-Logroño autobia eraikitzeko proiektuaren espedienteari buruz eskatutako informazioa.

– Galdera, Agoizko eskualderako lurraldea lehengoratzeko proiektu bat ote dagoen jakiteko. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez informazioa eskatu du Agoizko eskualderako lurraldea lehengoratzeko proiektuari buruz.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez informazioa eskatu du 2001-2005 urteetarako industriarako lurzoruari buruzko planari buruz.

**14an:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak golf zelaiak jartzeko udalek egindako eskaerei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak Hezkuntza zuzendari nagusiak Iruñeko alkateari teresatarren eraikinean haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe baten bideragarritasunari buruz igorritako agiriari buruz eskatutako informazioa.

– Idazkia, Antonio Barbarin Garisoain jaunarena eta beste batzuena. Horren bidez agerraldia egitea eskatu dute,Iruña-Logroño autobiaren trazaduraren kontrako alegazioak azaltzeko.

– Idazkia, Osasunbideako Osasun Publikoaren Institutuarena. Horrekin batera, bizimoduei buruzko materialak biltzen dituen karpeta bat.

**17an:**

– Parlamentuaren egoitza berrirako lanen zuzendaritza teknikoaren txostena, 10. aurrekontu partzialari buruzkoa.

– Parlamentuaren egoitza berrirako lanen zuzendaritza teknikoaren txostena, epea luzatzeari buruz.

– Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura arloetako laborategi ofizial bateratua sortzeari buruzkoa. Foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Irurtzun-Ziordia autobian animalientzako dauden pasabideei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Senatuarena, Osoko Bilkuraren abenduko jardueren egutegia jakinarazten duena.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bidez Sodenako zuzendariaren agerraldia eskatu du, sozietate horretako kapital mugimenduak azal ditzan.

– Idazkia, foru parlamentari Pilar Abadía Gauna andrearena. Horren bidez eskatu du Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekin izenpeturik dagoen hitzarmen bereziaren babesean haren alta formalizatzea.

**18an:**

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez informazioa eskatu du Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Bakearen mezulariak izeneko elkartearen artean zenbait zaharretxetan izenpetu dituzten itunei buruz.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez informazioa eskatu du Gobernuko departamentuek eta erakunde autonomoek 1991tik hona zenbait enpresari adjudikatu dizkieten obra kontratuei buruz.

– Erabakia, Nafarroako Gobernuarena, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion hiru “in voce” zuzenketa, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko Mahaiak igorriak, tramitatzea onartzearekin bat heldu dena.

– Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez Gobernua premiatzen du elkarrizketarako mahai bat era dezan, ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordutegia arautzen duen Foru Dekretua aurki argitaratuko dela-eta.

– Berraztertze errekurtsoa, ACS-ACR aldi baterako enpresa batasunak Mahaiak azaroaren 28an Parlamentuaren egoitza berrirako lanen exe-

kuzio epea luzatzeari buruz hartu zuen erabakiaren kontrakoa.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea Liebherr enpresaren batzordearekin eta zuzendaritzarekin, lan gatazkari buruzko informazioa emateko.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du Industria kontseilariaren agerraldia, Liebherr enpresaren egoerari buruzko informazioa emateko.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez informazioa eskatu du Nafarroako Gobernuak Liebherr enpresari emandako laguntza edo dirulaguntzei buruz.

**19an:**

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea Arronitz, Aiegi, Arellano, Lerin, Allo, Deikaztelu eta Sesmako alkateekin, Iruña-Logroño autobiaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruzko informazioa eman dezaten.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du fiskalizazio txosten bat egitea Foruzaingoaren Tuterako kuartela eraikitzeko lana kontratatzeko administrazio espedienteari buruz.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea Arronitz, Aiegi, Arellano, Lerin, Allo, Deikaztelu eta Sesmako alkateekin, Iruña-Logroño autobiaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruzko informazioa eman dezaten.

– Idazkia, Unión del Pueblo Navarro Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko taldeena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eutsi diete.

– Idazkia, Unión del Pueblo Navarro Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko taldeena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenari aurkeztutako boto partikularrei eutsi diete.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez Arartekoaren agerraldia eskatu du, “Immigrazioa Nafarroako Erriberan” txostena azaltzeko.

**20an:**

– Idazkia, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eutsi die.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eutsi die.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eutsi die.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eutsi die.

– Foru Lege proiektua, Nafarroko Nekazaritza Ganberari buruzko 4/98 Foru Legea aldatzekoa, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Abenduaren 17ko 347/01 Foru Dekretua, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak hautatu eta izendatzen dituena, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak haur hezkuntzako hileroko ordainketei aplikaturiko murrizketei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak urtearen lehenbiziko hamar hilabeteetan Nafarroan eraikitzen hasitako etxebizitzen kopuruari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Iruña-Logroño autobiaren eta Lizarrako merindadeko herrien arteko lotuneei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Errioxako Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunekin eta Sustapen Ministerioarekin Iruña-Logroño autobia lotzeko dagoen koordinazioari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Unibertsitateetarako Zuzendaritza Nagusiaren txostenari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eutsi die.

– Idazkia, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkiaren akats zuzenketa egin dute.

– Idazkia, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunarena. Horren bidez informazioa eskatu du Nafarroako Gobernuak eta Audenasak izenpeturiko lankidetza hitzarmenei buruz.

– Galdera, Arguedasen Naturaren Parkea ezartzeari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztua.

**21ean:**

– Idazkia, Ana Blanco Ansorena andrearena, telefonia mugikorrak kaltetuei buruzkoa.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako 2002ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketei eusteko aurkeztutako idazkiaren akats zuzenketa egin dute.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bidez informazioa eskatu du Los Arcosen hondakin berezien tratamendurako zentroa egiteko proiektuari buruz.

– Galdera, Los Arcosen hondakin berezien tratamendurako zentroa egiteko proiektuari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Idazkia, Tuterako Udalarena. Horrekin batera, etxeko indarkeriari buruz hartutako erabakia.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bidez Arartekoaren agerraldia eskatu du, “Immigrazioa Nafarroako Erriberan” txostena azaltzeko.

– Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da akademietako ikasleentzako informazioa arautuko duen lege proiektu bat igor dezan.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroak Madrilen duen enbaxadoreak eginiko lanei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Beriaineko minda-isurketei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak zenbait ospitaletan, legionellaren prebentziorako, 2000an eta 2001ean giroaren laginekin eginiko analisien emaitzei buruz eskaturiko informazioa.

**26an:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak sare publikoko liburutegien ordutegiari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Ogasun Publikoaren zorpetze eragiketak.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Gobernuko kideek eta zuzendari nagusiek Espainiatik kanpora eginiko bidaiei buruz eskatutako informazioa.

**27an:**

– Mozioa, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Junior-Empresak sustatzeko neurriak ezar ditzan.

– Galdera, RTVEk eta Nafarroako Gobernuak eskola umeentzat deitu duten ikus-entzunezkoei buruzko lehen lehiaketari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Idazkia, Konstituzio Auzitegiarena. Horrekin batera, ondasun eta zerbitzuen merkatuan lehiakortasuna areagotzeko presako neurriei buruzko 6/2000 Errege Lege-Dekretuaren 43. artikuluaren kontrako konstituziokontrakotasuneko errekurtsoan izandako alegazioak.

– Idazkia, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andrearena, RTVEk eta Nafarroako Gobernuak eskola umeentzat deitu duten ikus-entzunezkoei buruzko lehen lehiaketari buruzkoa.

**28an:**

– Nafarroako sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, Nafarroako Kontuen Ganbarak egina.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Udako Euskal Unibertsitateari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Sansoleko Udalarena. Horrekin batera Los Arcosen hondakin berezien tratamendurako zentroa jartzearen kontrako erabakia.

Inprimatzailea: ONA Industria Gráfica (Iruña).

Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua